



PRENTSARAKO OHARRA

18/11/21

Bizkaiko Batzar Nagusien osoko saioak Interes gatazkei eta Bateriaezintasunei buruzko Foru Araua onetsi dau

Bizkaiko Batzar Nagusietako osokoak Interes gatazkei eta Bateriaezintasunei buruzko Foru Araua onetsi dau gaur goizean Gernikan. Erespina, batzordean 21 zuzenketa-eske onetsi eta gero heldu da Batzarretako azkenengo izapide honetara. Horreen artean Batzarretako talde guztiek, Talde Mistoak izan ezik, egindako ekarpenak dagoz.

Bozketen emaitzak Interes gatazkei eta Bateriaezintasunei buruzko Foru Arauaren inguruan lortutako adostasunaren parte bat islatu dau. Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen guztizko gehiengoari esker onetsi da, testuaren ia artikulua guztiek Talde Mistoaren on ikusia jaso daben arren. EH Bilduren, Podemosen eta Talde Popularraren botoa, barriz, baiezkoa, ezezkoa edo abstentzinoa izan da, artikulua bakotxaren arabera.

40 artikulutan egituratzen dan Interes gatazkei eta Bateriaezintasunei buruzko Foru Arau proiektua Ibone Bengoetxea Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak aurkeztu dau Bizkaiko Batzarretan. Bere berbetan, “gauzak ondo eta hobeto egiteko Aldundiak bere buruagaz hartu dauen auto-konpromiso” moduan diseinatu da. “Foru kargu publikoa izatean bateraezintasunak eta interes gatazkak agertzea” prebeniduteko tresna da, “baina administrazioa etorri daiteken talentua mugatu barik”.

Euren ekarpenakaz Arau Proiektu honi “balioa emon deusien” Batzarretako taldeen beharra eskertu ostean, Bengoetxeak azpimarratu dau proiektuak, daborduko gauzatu diran edo une honetan Bizkaiko Foru Aldundia gauzatzen ari dan beste politika edo tresna batzuen ildo jarraitzen dauela, horregaz “egiteko etikoa eta gardena” bermatuz.

Oposizino taldeei “negozieta orduan erakutsi daben jarrera ona” eskertzeaz aparte, Euzko Abertzaleak taldeak adierazo dau “erakundeen izen ona defendiduteko” eta “herritarrek erakundeetan daukien konfiantzea indartzeko” aukerea emoten dauen Foru Araua dala; Ekain Rico Euskal Sozialistak taldeko bozeroaleak be bat egin dau jeltzaleak adierazotakoagaz.

Jon Atutxa Euzko Abertzaleak taldeko bozeroaleak azpimarratu dauenez, Foru Arauak “balioan jarten dau politikea positiboan ikusteko modua, demokrazia aurreratuek dituen antzeko neurriakaz”. Ibone Bengoetxea Foru Diputatuak adierazotakoagaz bat etorrita, bozeroale jeltzaleak, Arau hori “ezin daitekela modu independentean eta isolatuan ulertu” adierazo dau, Gardentasunerako eta Gobernamentu Onerako Foru Arauagaz eta Gobernu Irekiko Proiektuagaz bateragarria dalako.

Modu berean, Ekain Ricok adierazo dau Foru Arau honen onespengaz itxi egiten dala, 2014an, Eusko Legebiltzarrak, Kargu Publikoen Jokabide Kodea eta Interes Gatazkak Arautzen eban Legea onetsiz, ireki zan zirkulua. Ricoren berbetan, Arauak mezu “argia”

emoten dau: “Politikan gagozanok ez gara arpegi gogorrak, eta arau honegaz oso gatz jarten deusagu holangoei”.

ALDAKETAK HASIERAKO PROIEKTUAN

Batzarretako taldeek eztabaidan gogoratuazo daben moduan, Araua aldaketa batzuekaz heldu da Gernikara, Batzarretako taldeek Batzordean aurkeztu eta ostean eztabaidatu ebezan 134 zuzenketa-eskeak dirala eta. Halanda be, eta saio haretan oposizinoko talde guztiek euren zuzenketa-eskeak erreserbetako asmoa erakutsi eben arren, batak be ez dau lortu Batzar Nagusietako osokoak bere proposamenak onartzerik.

OPOSIZINOKO TALDEAK

Oposizinoko taldeen esku-hartzeen txandan, Javier Ruiz Talde Popularraren bozeroaleak, Arauaren mezuagaz bat etorri arren, Foru Gobernuari “borondate politikoa” eskatu deutso. Talde Popularraren eretxiz beharrezkoa da “edozein personak barriro beharrean hasteko eta bere lana jarduera pribadu batean aurrera eroateko daukan eskubidearen” eta “urteetan zehar batutako eragina dala eta onura jakin batzuk eskuratu ezin ahal izateko” ezarri behar dan mugaren arteko orekea erakutsiko dauen araua gauzatzea.

Arturo Aldecoa Talde Mistoaren bozeroaleak, Foru Araua “positiboa eta erabilgarria” dala esan dau, baina etorkizunean “buelta bat emon beharra” eskatu dau. Holan, Aldecoak esan dau tamalgarria dala holango arauak dirala eta, “balio handia daukien ideologia guztietako personak”, politikan parte hartu gura ez izatea, “bidezkoak eta duinak diran karrera profesionalak sakrifiketea oso gatz egiten daben loturak ezarten doguzalako”.

Neskutz Rodríguez Podemos taldearen bozeroalearen eretxiz, gaur onetsi dan testua “ez da nahikoa, oso pobrea da”. Rodríguezek, hiru helburutan zentretan diran zuzenketa-eskeak defendidu ditu: “interes gatazkei aurrea hartzea”; “ate birakariak prebenidutea”; eta “herritarrak interes gatazkak eta bateraezintasunak saihestearen inguruan sentsibilizetea eta informetea”.

Arantza Urkaregi EH Bilduko bozeroaleak, bere aldetik, Foru Araua aurreikusi baino “urte bi beranduago” heldu izana kritikau dau, eta “Bizkaia 2030 ekimenean planteetan zan moduan”, ez dauela “integrazinoko” printzipioa jasoten esan dau. EH Bilduko bozeroaleak barriro defendidu dau beharrezkoa dala “kanpoko kontrola” egitea, Berme Organuaren barruan araua betetearen jarraipena egingo daben kanpoko persona kualifikauen bitartez.

SESTAOKO LA NAVAL

Gaurko saioan, Batzar Nagusiek Sestaoko La Naval lantegiaren ganeko aho bateko adostasuna lortu dabe. Adostutako testuan, Batzarrek, beste ezer baino lehen, “Eusko Jaurlaritzan eskatu dan negoziazio mahaian parte hartzeko” eskatzen deusie Foru Aldundiari. Mahai horretan Eusko Jaurlaritza, Gobernu Zentrala, La Navaleko akzinodunak eta beharginen ordezkariak dagoz. Horrez gain, “La Navalen esku-hartze publikoan parte hartzeko” eta, Eusko Jaurlaritzagaz batera, “modu aktiboan eta ahalik eta lasterren”, Sestaoko udalerrriaren egoerari “arreta berezia” eskini behar deusian plan estrategikoaren egikaritzean aritzeko be eskatu deusie Aldundiari.

Akordio horren barruan, ganerako erakundeakaz batera, “armadoreagaz egin beharreko gestioak” egin daizala eskatzen deusie taldeek Aldundiari, “Sestaoko La Naval lantegiagaz kontratautako dragea bertan bukatu daiten”, eta baita “industria plan bideragarria ekarriko dauen inbertitzailea lortzeko” be.

Jardun beharrean danak ados egon diran arren, saioan ez da eztabaidarik faltau. Oposizinoko taldeek azpimarratu dabe beharrezkoa dala administrazio publikoak “preminaz” parte hartzea, eta Foru Gobernua eusten daben taldeek “borondatea eta konpromisoa” daukiela adierazo dabe, baina “ahal dogun punturaino, bete ezin izango dogun itxaropenik sortu barik”.

BASOKO POLITIKAK

Horrez gain, Bizkaiko Batzar Nagusiek aho batez onetsi dabe Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta EH Bildu taldeek sinatutako akordioa, Aldundiari eta Euzko Jaurlaritzari, gauza honetarako eskaria egiteko, beste gauza batzuen artean: “eztabaidarako eta erabagiak hartzeko foroak bultzatzea” eskatzeko, basoko politikek behar daben norabidea definiduteko interesa daukien eragile guztien partaidetzeagaz; “gardentasunez” jarduteko eta pinuen gaixotasunari aurre egiteko hartuko diran neurrien ganeko informazioa argitaratzeko; eta neurri horreen bitartez “prebentzino, ardura eta segurtasun” printzipioei erantzuteko.

DURANGALDEKO LPP

Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta EH Bildu taldeek sinatu daben akordio bat onetsi ostean, Batzarrek eskaria egingo deutsee Foru Aldundiari, Euzko Jaurlaritzari eta Durangaldeko udalerriei, “Durangaldeko LPPan aurreikusten diran aholkuak garatzeko eta aurrera eramateko beharrezkoak diran pausuak emoteko, batez be Zientzia Parkea eta Prestakuntza Eremua eta baita Energia Barriztagarrien gunea eta Ingurumenaren Kontrol Sareari buruzkoak”.

Batzarretako talde guztiek proposamenaren aldeko botoa emon dabe, abstenidutea erabagi dauen Podemos taldeak izan ezik.

LURRALDE MUGAPEEI BURUZKO FORU ARAUAREN ERREFORMEA

Eguneko gai zerrendako puntu batean, Batzar Nagusiek ez dabe onetsi Bizkaiko Lurralde Mugapeei buruzko Foru Arauaren aldaketea bultzatzeko Talde Mistoak aurkeztu dauen Arauz Besteko Proposamena. Aldaketaren zergaitia, puntu bat sartzea zan, “udalerrien eta behe mailako toki erakundeen izen ofizialetatik sortutako nahasketa egoeren ebazpenerako prozedura ezarteko”.

EZ DA ONETSI ITAUNETIK ERATORRITAKO MOZINO BAT

Osoko saioak Talde Popularrak itaunetik eratorrita aurkeztu dauen mozinoaren eztabaidea eta ostean ez onestea be jaso dau. Bozketan, Alderdi Popularrak, Podemosek eta EH Bilduk baiezkua emon dabe, Talde Mistoak abstenidu egin da eta Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek kontrako botoa emon dabe.

Mozino horretan, proposamena aurkeztu dauen taldeak, 2017an eta 2018an Bizkaibusen emakidak daukiezan enpresei egindako auditoretza biak, astebeteko epean Batzarretako Taldeei bialtzeko eskatzen eutsan Garraio, Mugikortasun eta Kohesio sailari, eta baita

“Grebarako eskubidea eta herritarrei zerbitzu duina eta kalidadekoa” bermatzeko emon beharreko pausuak azaltzeko be.

Oposizionoko taldeek “gardentasuna” eskatu dabenean, Foru Gobernua eusten daben taldeek “pazientzia eta erantzukizuna” eskatu dabe, eta auditoretza horreek, teknikariek txostenak eta azterlanak amaitzen dituenean aurkeztuko dirala.

BATZARKIDE AGIRIA

Saioaren hasieran, Batzarren aho bateko onespeneren ostean, Isabel Cadaval sozialistak eskubide osoko batzarkide izaerea bereganatu dau.

NOTA DE PRENSA

21/11/18

El pleno de las Juntas Generales de Bizkaia aprueba la Norma Foral de Conflicto de Intereses e Incompatibilidades

El pleno de Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado esta mañana, en Gernika, la Norma Foral de Conflicto de Intereses e Incompatibilidades. El dictamen llegaba a este último trámite parlamentario con 21 enmiendas aceptadas en comisión, entre las que se recogen aportaciones de todos los grupos de la Cámara, a excepción del Grupo Mixto.

El resultado de las votaciones ha reflejado parte del consenso alcanzado sobre la Norma Foral de Conflicto de Intereses e Incompatibilidades que ha sido aprobada gracias a la mayoría absoluta de los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, si bien en casi la totalidad de los artículos el texto ha recibido el visto bueno del Grupo Mixto. El voto de los grupos EH Bildu, Podemos y Grupo Popular, por su parte, ha estado variando entre la aprobación, el rechazo y la abstención dependiendo el artículo.

El proyecto de Norma Foral de Conflicto de Intereses e Incompatibilidades, que se estructura en 40 artículos, ha sido presentado en la Cámara vizcaína por la diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, que lo ha calificado como una herramienta que ha sido diseñada “como un auto compromiso de la Diputación de querer hacer las cosas bien y mejor”. Una herramienta para prevención de “la aparición de incompatibilidades y conflictos de interés durante el ejercicio del cargo público foral”, aunque “sin limitar que el talento pueda venir a la administración”.

Tras agradecer el trabajo de los grupos junteros, que con sus aportaciones “han dado valor” a este Proyecto Normativo, Bengoetxea ha subrayado que éste, va en línea con otras políticas o instrumentos ya llevados a cabo o que está desarrollando la Diputación Foral de Bizkaia, garantizando con ello “un ejercicio ético y transparente”.

Además de agradecer a los grupos junteros de la oposición “la buena disposición a la hora de negociar”, el grupo Nacionalistas Vascos ha manifestado que ésta se trata de una Norma Foral con la que “defender el buen nombre de las instituciones” y “reforzar la confianza de la ciudadanía en las instituciones”; una idea a la que también se ha sumado el portavoz del grupo Socialistas Vascos, Ekain Rico.

El portavoz de Nacionalistas Vascos, Jon Atutxa, ha destacado que la Norma Foral “pone en valor esa visión de la política en positivo con medidas similares a las de las democracias avanzadas”. En consonancia con lo expresado por la Diputada Foral Ibone Bengoetxea, el portavoz nacionalista ha manifestado que esta Norma “no puede ser entendida de manera independiente y aislada”, pues se complementa con la Norma Foral de Transparencia y Buen Gobierno y el Proyecto de Gobierno Abierto.

En la misma línea, Ekain Rico, ha manifestado que, con la aprobación de esta Norma Foral, se cierra un círculo que se abrió en 2014 con la aprobación, por parte del Parlamento Vasco, de la Ley Reguladora del Código de Conducta y de los Conflictos de Intereses de los Cargos Públicos. Una Norma que, en opinión de Rico, lanza un mensaje

“claro”: “Quienes estamos en política no somos unos jetas, y con esta norma se lo ponemos muy difícil a los que sí lo son”.

CAMBIOS EN EL PROYECTO INICIAL

Como han recordado en el debate los grupos junteros, la Norma llega a Gernika con algunas modificaciones, fruto de las 134 enmiendas que los grupos junteros presentaron y posteriormente debatieron en Comisión. Sin embargo, y después de que en aquella sesión todos los grupos de la oposición manifestaran su intención de reservar sus enmiendas, ninguno ha logrado que alguna de sus propuestas sean aprobadas por el pleno de las Juntas Generales.

GRUPOS DE LA OPOSICIÓN

En el turno de intervenciones de los grupos de la oposición, el portavoz del Grupo Popular, Javier Ruiz, a pesar de compartir el mensaje de la Norma, ha reclamado “voluntad política” por parte del Gobierno foral. El Grupo Popular ve necesaria la ejecución de una norma que presente un equilibrio “entre el derecho de cualquier persona a reincorporarse e iniciar su labor en una actividad privada”, y la limitación para que “no se puedan obtener determinados beneficios como consecuencia de esa influencia acumulada a lo largo de los años”.

El portavoz del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa, ha definido la Norma Foral como “positiva y útil”, aunque ha reclamado la necesidad de que en un futuro “se le dé una vuelta”. En este sentido Aldecoa ha lamentado que, a consecuencia de este tipo de normas, personas “de valía y de todas las ideologías” no quieran participar en política debido a que “ponemos unos corsés que hacen muy difícil el sacrificar las carreras profesionales legítimas y dignas para caer luego en una situación compleja”.

Para Neskutz Rodríguez, portavoz del grupo Podemos, el texto hoy aprobado es “insuficiente y flojito”. Rodríguez ha defendido unas enmiendas que se centran en tres objetivos: “anticiparnos a los conflictos de intereses”; “prevenir puertas giratorias”; y “sensibilizar e informar a la ciudadanía sobre la importancia de evitar los conflictos de intereses y las incompatibilidades”.

Por su parte, la portavoz de EH Bildu Arantza Urkaregi, ha criticado que la Norma Foral haya llegado “dos años más tarde” de lo previsto, y que no haya incluido, “tal y como se plantea en Bizkaia 2030”, el principio de “integración”. La portavoz de EH Bildu ha defendido nuevamente la necesidad de que se realice un “control externo” mediante la inclusión de personas cualificadas externas que realicen un seguimiento del cumplimiento de la norma dentro del Órgano de Garantía.

LA NAVAL DE SESTAO

En la sesión de hoy, las Juntas Generales han adoptado un acuerdo unánime en torno a La Naval de Sestao. En el texto consensuado, la Cámara, en primer lugar, insta a la Diputación Foral a “participar en la mesa de negociación solicitada en el Parlamento Vasco donde están representados el Gobierno Vasco y central, los accionistas de La Naval y la representación de la plantilla”; a “participar en la intervención pública en La Naval”; y a colaborar “activamente y a la mayor brevedad posible” junto al Gobierno

Vasco, en la elaboración del plan estratégico, con “especial atención” a la situación del municipio de Sestao.

En el acuerdo los grupos también instan a la Diputación a realizar, junto con el resto de instituciones, “las gestiones necesarias con el armador, para que se finalice la draga contratada con La Naval de Sestao”, así como a “conseguir un inversor con un plan industrial viable”.

A pesar de coincidir en la necesidad de actuar, la sesión no ha estado exenta de debate. Mientras los grupos de la oposición insisten en la importancia de que la administración pública intervenga “de manera urgente”, los grupos que sustentan al Gobierno Foral manifiestan tener “voluntad y compromiso” aunque “hasta donde podamos, sin generar expectativas que no podamos cumplir”.

POLÍTICAS FORESTALES

Asimismo, las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado por unanimidad un acuerdo suscrito por los grupos Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y EH Bildu, en el que se insta a la Diputación y Gobierno Vasco, entre cosas, a “impulsar foros de debate y decisión” con la participación de todos los agentes interesados en definir la dirección que las políticas forestales precisan; a actuar “con transparencia” y a publicar toda la información sobre las medidas que se adoptarán para hacer frente a la enfermedad de los pinos; y a que estas medidas respondan los principios de “prevención, precaución y seguridad”.

PTP DE DURANGALDEA

La Cámara, a consecuencia de la aprobación de un acuerdo suscrito por los grupos Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y EH Bildu, instará, tanto a la Diputación Foral como al Gobierno Vasco y a los municipios de Durangaldea, a que “den los pasos necesarios para desarrollar y ejecutar las recomendaciones previstas en el PTP de Durangaldea con especial impulso al desarrollo del Parque Científico y Campo de formación, así como el Polo de Energías Renovables y Red de Control Ambiental”.

Todos los grupos junteros han votado favorablemente a la propuesta, a excepción del grupo Podemos, que ha optado por la abstención.

REFORMA DE NORMA FORAL DE DEMARCACIONES TERRITORIALES

En uno de los puntos del orden del día, las Juntas Generales han rechazado una proposición no de noma presentada por el Grupo Mixto, que impulsaba la reforma de la Norma Foral de demarcaciones territoriales de Bizkaia, a fin de incluyera un punto para “establecer un procedimiento para la resolución de situaciones de confusión derivadas de las denominaciones oficiales de municipios y entidades locales menores que puedan inducir a error”.

MOCIÓN DERIVADA DE INTERPELACIÓN RECHAZADA

La sesión plenaria ha acogido también el debate y posterior rechazo de una moción derivada de interpelación presentada por el Grupo Popular. La votación se ha sustanciado con los votos favorables del Grupo Popular, Podemos y EH Bildu; la abstención del Grupo Mixto; y el rechazo del grupo Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos.

En la moción el proponente instaba al departamento de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio a remitir a los Grupos de la Cámara, en el plazo de una semana, las dos auditorías realizadas en 2017 y 2018 a las empresas concesionarias de Bizkaibus, y a presentar los pasos a dar para garantizar “el Derecho a la Huelga y un servicio digno y de calidad a los ciudadanos”.

Ante la petición, por parte de los grupos de la oposición, de “transparencia”, los grupos que sustentan al Gobierno foral han pedido “paciencia y responsabilidad” y han manifestado que dichas auditorías serán presentadas una vez los técnicos finalicen los informes y análisis.

CREDECIAL DE APODERADA

Al inicio de la sesión, tras una aprobación unánime por parte de la Cámara, la socialista Isabel Cadaval ha adquirido su condición de apoderada de pleno derecho.